Usurbilgo Udala

2023/01/31

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO URTARRILAREN 31N GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2023/01/19KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2023ko urtarrilaren 19ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2022KO GIZARTE ZERBITZUETAKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2022GDEA0001).

2022GDEA0001
GZ42/2022-0044

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, 2022. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko martxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 15 eskaera jaso ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21eko datan, dirulaguntza kopuruak onartu zituen eta batia 1. zatiaren ordainketa ere.

Orain, eskatzaileek dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu dute.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2022/03/08)
- 2023/01/17-ko teknikariaren txostena.

Usurbilgo Udala

2023/01/31

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	2. zatia
ADAHIGI, Arreta Gabeziaren Nahastea, Hiperaktibitatearekin edo gabe	211,16 €
ADEMGI, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkartea	178,67 €
AGI, Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkartea	438,56 €
AGIFES, Buru eritasuna duten pertsonen familien elkartea	406,07 €
AGIPASE, Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkartea	552,26 €
ALCER GIPUZKOA, Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen gipuzkoako elkartea	487,29 €
ASEBIER (Enfermedades raras Pais Vasco Espina Bifida e Hidrocefalia (Asebier)	300,00 €
ATECE GIPUZKOA, Traumatismo kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen gipuzkoako elkartea	357,34 €
ATZEGI, Adimen urritasuna dutenen eta beraien familien bizi kalitatea hobetzeko elkartea	617,23 €
GAUTENA, Autismoaren Espektroko Nahastea duten pertsonen senideen elkartea	438,56 €
GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	248,50 €
GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	400,00 €
IZAN FUNDAZIOA, Gizabanakoa droga mendekotasunaren aurrean babesteko elkartea	471,04 €
ORTZADAR, Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen elkartea	357,34 €
PAUSOKA ELKARTEA, Behar bereziak dituzten haurren gurasoen elkartea	536,01 €

Bigarrena: Bigarren zatiaren ordainketak partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.231.03.02.2022 **(A 74-2022)**

Hirugarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

Laugarrena: Interesatuei erabakia jakinaraztea.

Usurbilgo Udala

2023/01/31

3.- 2022KO KULTUR ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2022UDIU0001).

Espedienteak:
Mikel Usabiaga (Usurbilgo Euskal Kantu Taldea) (KE.01/2022-0049)2022UDIU0005
Einean Guraso Eskola (KE.01/2022-0057)2022UDIU0002
San Praixku Guraso Elkartea (KE.01/2022-0074)2022UDIU0003
Belmonte auzo elkartea (KE.01/2022-0075)2022UDIU0004
Ziortza Gazte Elkartea (KE.01/2022-0090)2022UDIU0006
Noaua! (KE.01/2022-0091)2022UDIU0007
Antxomolantxa (KE.01/2022-0092)2022UDIU0008
Placeres Lorenzo Manzano (Txokoargi Elkatea) (KE.01/2022-93) 2022UDIU0016
Jexux Artze Kultur Elkartea(KE.01/2022-95) 2022UDIU0010
Juan Luis Atxega Pagola (Organoen Lagunak)(KE.01/2022-96) 2022UDIU0011
Orbeldi dantza taldea (KE.01/2022-97) 2022UDIU0012
Hitz Aho Udarregi ikastolako gurako Elkartea (KE.01/2022-98) 2022UDIU0017
Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (KE.01/2022-99) 2022UDIU0018)
Bihurri Txiki Ludoteka (KE.01/2022-101) 2022UDIU0019
Jexux Agirresarobe Arzallus (Nafartarrak) (KE.01/2022-0102)2022UDIU0019
Bidean Agiñarron Herri Elkartea (KE.01/2022-0103)2022UDIU0014
Iñurri Minbiziaren aurkako elkartea (KE.01/2022-0104)2022UDIU0020
Santuenea Kultur Elkartea (KE.01/2022-0105)2022UDIU0015

IKUSIRIK

Kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak 2022ko martxoaren 8an argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 21ean egindako bilkuran onartu zituen behin betikoz 2022ko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

Elkarteek euren ekintzak burutzeko emandako dirulaguntzak zuritu dituzte.

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- Kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2022/03/08)
- Kontu-hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Usurbilgo Udala

2023/01/31

Eskatzailea	Ekintza	Ordaintzekoa
Mikel Usabiaga – Kantu Taldea	1,2,3	514,12 €
Eskola- Einean guraso Eskola	4,5,6,7 Berez 271 euro ordaindu behar zitzaizkien, baina, akatsa tarteko, 204 €ko itzulketa egin dutenez, 475 euro ordainduko zaizkie.	475,00 €
San Praixku Guraso Elkartea	8,9,10,11,12,13,14	389,29 €
Belmonte auzo elkartea	15,16	242,45 €
Noaua!	21,22,23,24,25,26	2.738,76 €
Antxomolantxa	28,29,30,31,33,34	166,25 €
Orbeldi Dantza Taldea	46,47	492,13 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkartea	53,54,55,56	980,05 €
Bihurri Txiki Ludoteka	57,58	198,54 €
Jexux Agirresarobe Arzallus (Nafartarrak)	59,60	334,50 €
Bidean Agiñarron Herri Elkartea	61,62,63,64,65,66,67,69	1.328,76 €
Izan Inurri	70	195,12 €
Santuenea Kultur Elkartea	73,74,75,76,77,78,79,80,81, 82,83	1.082,07 €
	Guztira	**9.137,04 €**

Bigarrena: Eskatzaile hauek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Ekintza	Itzultzekoa
Ziortza Gazte Elkartea	17,18,19,20	-3.115,04 €
Placeres Lorenzo	35,36,37,38,39	-474,56 €
Jexux Artze Kultur Elkartea	42	-355,47 €
Juan Luis Atxega Pagola	43,44,45	-61,88 €
Hitz Aho edarregi ikastolako gurako Elkartea	48,49,50,51,52	-283,57 €
	Guztira	**-4.290,52 €**

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

Usurbilgo Udala

2023/01/31

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Hirugarrena: Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2022 (A-44).

Laugarrena: Interesdunei akordioaren berri ematea.

Bosgarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

4.- 2023 URTERAKO NORGEHIAGOKA ERREGIMENEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI BATERATUEN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEA:

4.1.- GIZARTE ZERBITZUETAKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023GDEA).
4.2.- INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023JDIU).
4.3.- KIROL ELKARTEEN OHIKO KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023KDKE).
4.4.- KIROL EGOKITUKO JARDUERAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023KDEG).
4.5.- KIROL ELKARTEENAK EZ DIREN KIROL JARDUERAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023KDEE).
4.6.- KULTUR ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023UDIU).
4.7.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK (2023NDIU).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian hainbat alorretan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarri orokorrak atera nahi ditu.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren norgehiagoka erregimeneko hainbat dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea 2023 urtean egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonei.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Lehenengoa: 2023an norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko programa desberdinen deialdi bateratuaren oinarri orokorrak onartzea.

Bigarrena: Oinarri orokorren eranskin moduan doazen eskaera orria eta oinarri espezifikoak onartzea:

1. eranskina. Eskaera orria.
2. eranskina. Gizarte Ongizatea saila.
    2.1. Gizarte Zerbitzuetako egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
3. eranskina. Ingurumen saila.
    3.1. Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
4. eranskina. Kirol saila.
    4.1. Kirol elkarteen ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
    4.2. Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
    4.3. Kirol elkarteenak ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
5. eranskina. Kultura saila.
    5.1. Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
6. eranskina. Nekazaritza eta Abeltzaintza saila.
    6.1. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

Hirugarrena: Eranskin bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida hauen kargura joango da:

2.1. eranskina: 1.8000.481.231.03.02.2023
3.1. eranskina: 1.6100.480.172.00.01.2023
4.1. eranskina: 1.4300.481.341.00.01.2023
4.2. eranskina: 1.4300.481.341.00.06.2023
4.3. eranskina: 1.4300.481.341.00.07.2023
5.1. eranskina: 1.4000.481.334.00.03.2023
6.1. eranskina: 1.6200.481.412.00.03.2023

Laugarrena: Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian argitaratzea.

Bosgarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.

5.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT IPINI NAHI DUTEN EKINTZAILEENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023PUZA).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, 2023an Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko bi dirulaguntza lerro arautu ditu:

a) Enpresa ekimenak abiaraztearen hasierako gastuei aurre egiteko
b)Jarduera ekonomiko berri bat hutsik dagoen merkataritza lokal batean irekitzeko, lokalaren

alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2023. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2023an Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.02, 27.000 € ezartzen direlarik.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2023eko irailaren 30arte. Ebazpenak bi epetan emango dira: lehenengoa, 2023ko maiatzaren 31 arte aurkeztu dituzten eskariena, eta bigarrena, 2023ko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

6.- EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN-GUNEAREN ERABILERARAKO HASIZ HAZI DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023PHAS).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, ekintzaileei laguntzeko, Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean egonaldia eta erabilera ordaintzeko bideratuko du 2023ko Hasiz Hazi dirulaguntza.

Dirulaguntza hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da.

Diru-laguntza honen bitartez enpresa proiektu berri bat garatzen ari diren pertsonei edo JEZ alta emanda egon eta lan egiteko leku bat behar duten pertsonei urtebeteko egonaldia ordainduko zaie Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten eta harreman sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio.

Jarduera proiektuarekin hasi berriak, Beterri-Buruntza eskualdeko autoenplegu zerbitzuan, enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira. Ideia batetik abiatu eta proiektu bat garatzerakoan, enpresaren bideragarritasun plana prestatzerakoan eta abian jartzekoan (finantzaketa, lege-irizpideak, dirulaguntzak) laguntza eskuratu ahal izango dute.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2023rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.03 eta diru-laguntzarako 4.936,80 € ezartzen dira.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2023eko irailaren 30 arte.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

7.- KULTUR SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023UDSO).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak Usurbilgo artisten sorkuntza prozesuak hauspotu, sormena sustatu edota kultura sare eraldatzailea sortu nahi ditu.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren norgehiagoka erregimeneko Kultur Sorkuntzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta eranskinak onartzea 2023ko deialdia gauzatu ahal izateko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2023ko norgehiagoka erregimeneko Kultur Sorkuntzarako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak onartzea.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa, 15.000 €, partida honetatik bideratzea:
1 4000.481.334.00.06 2023

Hirugarrena: Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki honen berri kontuhartzaileari ematea.

8.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023GDDE).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarrera etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena

- Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03.2023 -Dirulaguntza irekiak: Deserrotze-baztertze- (A 87-2023)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

9.- DESGAITASUNA EDOTA MENDEKOTASUNA DUTEN ADIN TXIKIKOEN OSASUN EGOERA HOBETZEKO TRATAMENDUETARAKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023GDAT).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarrera etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena
- Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03.2023 -Dirulaguntza irekiak: Deserrotze-baztertze- (A 87-2023)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

10.- GIZARTE BAZTERKERI EGOERAK SAIHESTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023GDBE).

Ikusirik

2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (12/2008) 5. artikuluan hau adierazten du: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak “pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta hori sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez». Horretarako, prestazio ekonomikoei buruz hau azaltzen du: «Hartzaile dituztenen gizarteratzea eta autonomia sustatzeko xedea izan behar dute prestazio ekonomikoek, eta lagungarri izan behar zaizkie gizarteratzeko prozesuan, edo, haien mendetasun edo babesgabetasun egoerek eragindako beharrizanei erantzun behar diete, aldi batez edo iraunkorki.”

Hori dena kontutan hartuta, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du Gizarte Bazterkeri egoeran dauden pertsonei dirulaguntzak emateko.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena
- Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Gizarte bazterkeri egoerak saihesteko dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpenproposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.06.2023 -Dirulaguntza zuzenak: gizarte bazterketari aurre egiteko udal laguntzak **(A 85/2023)**

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

11.- NORGEHIAGOKA ERREGIMENEKOAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023KINE).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2023 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2023 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonei dirulaguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-25 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2023an norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen diren diru izendapenak:

143	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak	5.400 €
143	00	481	341	00	04	Kirol teknikoen prestakuntza	1.000 €
43	00	481	341	00	08	Kirol mediku azterketa	5.000 €
443	00	481	341	00	10	Eskola Kirolerako laguntzak	5.000 €

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian eta

Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

12.- ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023HDEA).

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuren zati bat ordaintzen laguntzeko 2023. urteko dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak prestatu ditu.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Proposamen honi erantsirik doazen Usurbilgo udalerrian etxebitzak alokairuan hartzeko 2023 dirulaguntzen oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gainditukо ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1.6000.481.151.00.01.2023.

HIRUGARRENA: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

LAUGARRENA: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

BOSTGARRENA: Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

13.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023HDIG).

Ikusirik

Usurbilgo Udala

2023/01/31

Usurbilgo Udalak, herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailuaren instalazioa bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu, 2022. urtean zehar amaitutako instalazio jarduerak diruz laguntzeko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapituluaren I. Atalak ezartzen duena jarraiki.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gainditu ko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1 6000.780.231.03.01 2023

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00etan direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.